



BARREN
TOKIKOM

Egin bat



HHko HAURRENTZAT,
2-5 URTE



Atxutxiarintxintxika



ATXUTXIAMAIIKA

APIRILAK 8, ZAPATUA

11:30EAN

KALEGOEN PLAZAN



ELGOIBARKO
UDALA

GAZTERIA

elgoibar

biZi-biZiXal

Antxustegi



ZERAMIKA
ETA HARRIA



LURZORU
LAMINATUA



MARGOZTUTAKO
PAPERA



BAINUGELA



BURDINDEGIA



ERAIKUNTZARAKO
MATERIALAK

943 743 344

Olaso industrialdea, Olasope, 5 - Elgoibar

www.antxustegi.com



HAIZEA BERISTAIN



“Akordau jatan orduan Miren Amurizak hiru klasetako komunak bereizi zittuala”

Q *le hermana*, zer dion? Hemen nago, asteburuak lagatako Diogenesen sindrome emozionala gaindittu nahixan. Granadan egon naiz ni, ze leku, ze jende, ze bizi...

Barixaku gabian taberna guai batera sartu, bigarren zer-bezia edan, eta txixaguria. Beheko pisura bajatu eta asteburu gehixenetako estanpia: lau neska illaran, hankak gurutzauta, eta *caballeros*-en komuna hutsik. “*Está libre, ¿entráis?*”. Ezetzak, eta ni, barrura. Zikin xamarra zeguan aukeran, baiña amamak behin ahopian emandako gomendixua jarraitu eta... “*etxetik kanpoko komunetan, erdi tente!*”. Erten, eta (hau ere asteburu gehixenetako estanpia) gizon baten begirada nardagarri bat.

Ez dakit zuri pasauko jatzun, baiña neri amorrua baiño gehixago, plazera sortzen die halakuek. Pentsatzen jartzen naiz ze pasau ete jakon burutik ni komunetik ertetzen ikustian, edo pentsau gabeko begirazuna izan zan, “bere” komunian sartzen dan “lo-

tsagabe” danei jarri biharreko zigillua.

Eskola bateko orientatzailliak kontau zian aurrekuan irakaslien komuneko giltza eman ziuela ikasle bati, ez zalako libre sentitzen gona eta praka irudiz bereiztutako espazio hórretan. Akordau jatan orduan Miren Amurizak hiru klasetako komunak (eta erabil-tzailliak) bereizi zittuala *Zutik-eserita* artikuluan. Klasikuak, *señora* eta *caballero*, gona edo prakadun irudidunak...; Modernuak, gauza berdina era guaixan esaten debenak, atietan kulero edo galtzontziluak esegita eta abar; eta apurtzailiak, kartelik gabekuak edo ideia berritzailedunak, binarismotik ihes egitten debenak.

Imaginatzen dot orduan ikasle hori azken motako komun honen ate aurrian, begiradarik jasan biharrik gabe; imagina-tzen dot illara mixto bat eta ez hankak gurutzautako lau neska eta imaginatzen dot nere burua erdi zutik txixa egin ostian lasai komunetik ertetzen, komunei buruz idatzi biharrik euki gabe.



MADDI MENDIBIL

“Neri ere tokau jata illara batekin topo egittia, eta parian, komun bateko atia zabalik ikustia”

P *queñaja!* Ez nabil ba gaizki, gure aittittak esaten zaban moduan, *txarto bez!* Zure testua irakurri dotenian, lehen-guan pisukidiak kontautako istorixiakin akordau naiz. Itxura danez, udalekutara juten ziranian, hango ekintzekin asper-tuta, bera eta lagun bat hondarrezko mendi txiki baten puntara ixotzen ei ziran, eta gain-gainian zaudenian, bixak kaka egitten zebela kontatzen zeban, gero batana ala bestiana behera zein lehenago allauko ikusteko, komuna aukeratu biharrik gabe. An-daluz honek... kaka egitterako orduan ere, saleroso!

Hasi naiz pentsatzen komun diferentietan, etorri jataz burura zuk esan dozuzen tipo danak. Akordau naiz juergan probautako komun danekin eta baiita zuk kontautako situaziuaren antzekuekin ere. Ez dizut gizurrik esango; neri ere tokau jata ulertu ezin izan doten illara batekin topo egittia, eta parian, komun bateko atia zabalik ikustia, eta ikusi dittut ate horretatik ertendakuan begirada zuzen hórrek ere. Baina, Haize, zuk esandakuekin ados: ez al

dauke morbo puntu bat hórrek begiradok? Eta ez al da graziosua illara horri zentzurik hartu ezinda begiratu eta komun hutsera sar-tzia?

Nik ez dot hirugarren komun transgresore horren aldeko pro-pagandarik egingo. Horretarako baiño gehixago siñistu nahi neuke illaran dauden lau neska horrengan, eta espero dot, illaria luziaua ein ahala, poliki-poliki, jungo dirala komun hutsera sartzen, atian gonarik gabeko monigotia ikusitta ere.

*Nahiz aberatsa izan,
igual dala pobre,
kaka egin beharko dugu
egoteko libre...*

Holan esaten dau Oskorrin kantu batek, eta aizu, arrazorik ez jako falta! Ze komun moderno, klasiko ala apurtzaille, zulo asko-dun kuarto haundi bat, eta kaka, komunian!



MIKEL ARTOLA

Ekonomialaria

Garai nahasiak

azkoa urte esanguratsua izango ei da historia liburuetan, aldaketaranzko bi mugarri sendo finkatzean: Europako Batasunaren balizko desagertzearen hastapena, Erresuma Batuen arteko hauspotuta, eta politika protekzionisten itzulera, Trumpen aldarri basatien eskutik.

Protekzionismoak garai ezberdinetan izan du bere lekua, beti kanpokoen aurreapenaren, hurbilketa mesfidantzaz.

Historia adibidez jositako dago, eta paradigmaticoenetako bat beharbada XIX. eta XX. mendeetan Inglaterrek Indian eginiko sarraskia da: ohiko landaketak kendu, landare bakarrek uzta inposatu, elikadura katea eten, merkegiak zirelako esportazio elikagaiei arantzelak ezarri eta lehen inportatu beharra ez zeukaten produktuekiko dependientzia eragin. Gosetea eta pobrezia bakarrik ez, beraien kronifikazioa eta garapenaren baliabideen suntsiketa ere bai. Eta lehenago lepotik burua. Mendebalde indartsua izan da irabazle itun gehien-gehienetan, eta lege gotor eta menperaezinenek ez dute zertan justizia lagun.

Potentzien arteko aliantza eta oreka ikusigabekoak atejoka ditugula aipa-

tzen da; AEBak eta Errusiaren arteko harreman berria, Txina eta AEBen arteko tentsioa, Mexikoren hegoalde-ranzko garapena, Iran eta Turkiaren hazteko irrika... Zirrargarria agian urruntasunetik berea babesean dagoela uste duenarentzat, lazgarria zinez gizakia gizakiaren mehatxu beldurgarriena dela jasan beharra duenarentzat.

Bere 60. urteurrenean Europak berriro ekin dio bi abiaduren debaterari, hamaika osagaien, herriren batuketa estatu bakar baten batasuna nekez izan daitekela ohartuta, eta osagai, gizarte bakoitzak dagoeneko bi abiadura baino gehiago badituela ohartzeke. Goranzko bidea gidatu izan duten pentsaera irekia eta elkar-lana gailendu daitezela ataka gaiztoan nahastu baino lehen.

“Mendebalde indartsua izan da irabazle itun gehien-gehienetan, eta lege gotor eta menperaezinenek ez dute zertan justizia lagun izan”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuittzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izaguirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eduarne Izaguirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegui, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gerutu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► GAZTEOK INDEPENDENTZIA!

Bai, gu izan ginen herriko kaleetan espainiar estatuko politikari, aktore, enpresari...-en argazki eta esaldiak jarri zituztenak. Esaldi denak errealak izanik ere, onartzen dugu exagerazio puntu bat bazuela kanpainak. Horrek ez du muina ezkutatu, behar, ordea.

Espainiar estatuak zapaldu gaitu eta zapaltzen gaitu gaur. Hiru zapalkuntza jasaten ditugula esan dezakegu: sistema kapitalistarena, patriarkatuarena eta nazio zapalkuntza euskaldun gisa.

Independentzia tresna bezala ulertzen dugu guztia aldatzeko, Euskal Herria gure beharretatik eraikitzeko. Independentzia behar dugu estatu feministaren eraikuntzari ekiteko, desjabetuok erdigunean kokatzeko, euskaratik eta euskaraz bizi ahal izateko. Independentzia, amesten dugun Euskal Herri hori marrazteko, ezinezko delako espainiar estatu kapitalista, patriarkal eta ukatzailea eraldatzea; erroitik erauzi beharreko egitura delako.

Ez gara egun handiaren etorreraren

zain geratuko, ordea. Gaurdanik hasi nahi dugu euskal estatu independentea imaginatzen eta lantzen; errealitate horri buelta emateko gogoia eta indarrak batu behar ditugu, Elgoibartik hasita. Horixe izango da datozen hilabeteetan izango dugun erronka nagusia, horretan jardungo dugu Jaiki gazte taldetik, aipatutako hiru ildoetan.

Ibilbide horretan ezin ahaztu maiztaren 7an Elgoibarren Gure Esku Dago ekimenak antolatu duen herir kontsulta. Beharrezkoa ikusten dugu zita garrantzitsu horretarako gazte independentistok aktibatzen eta artikulatzen joatea. Euskal estatu independente bat nahi badugu benetan gazteok izan behar dugu horretarako motorra.

Joango gara, beraz, ekintzen berri ematen. Mila esker orain arte independentziaren kanpainari atxikimendua eman diozuenoi, eta oraindik egin ez duzuenoi zuen argazkia bidaltzeko eta ekintzetan parte hartzeko gonbidapena. Jaiki gara, eta martxan gaude!

Jaiki gazte taldea

► ESKERRIK ASKO

Elgoibarko Kale Kantariak taldetik eskerrak eman nahi dizkiegu C.D. Elgoibarri eta Txomin Mujika Udal Musikari Bandako zuzendariari, klubaren mendeurrenako kontzertu berezian oholtzara igo eta beraiekin kantatzeko aukera eman zigutelako. Berandu bada ere, eskerrik asko.

Kale Kantariak

► BAIONARAKO AUTOBUSA

Bakearen Artisauak taldeak egin dako deialdiarekin bat egin du Elgoibarko Ezker Abertzaleak, eta horren harira, apirilaren 8an Baionara joateko autobusa antolatu du. Jai Alai tabernan eman behar da izena.

Elgoibarko Ezker Abertzalea



III. URTEURRENA

Rosario Zulaika Osa


2014ko apirilaren 3an hil zen. Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilaren 1ean, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren elizan. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



III. URTEURRENA

Julia Gorrotxategi Osoro

2014ko apirilaren 3an hil zen, 90 urte zituela. Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilak 1ean, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren elizan. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



Trinitateetako Danborrada gauz izango da aurten

Atabal elkarteko zuzendaritza talde berria hasi da ekainaren 10ean egingo den Trinitateetako danborrada antolatzen, eta hartu duten lehenengo erabakia danborradaren ohiko ordutegia berreskuratzea izan da. Iaz, 19:00etan egin zuten danborrada, baina aurten, berriz ere, 23:00etan hasiko da.

Danborradari lotuta, ekintza bera iragarriko duen kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu dute. 18 urtetik gorako edonork hartu dezake parte lehiaketan. Teknika librekoa izango da, baina ezinbestean agertu beharko da ondorengo testua: Elgoibarko 2017ko danborrada. Ekainaren 10ean, 23:00etan. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du. Lanak Kultur Etxeko Kultura Sailean aurkeztu behar dira, maiatzaren 5erako. Joan zen astean, bestalde, gazta zozketatu zuen Atabal elkarteak txosnan, eta 263 zenbakia izan da irabazlea. Saridunak Eizaguirre okindegian jaso beharko du gazta.



Moru Mendiaren inguruko paisaien diagnostikoa egingo du Elgoibarko Udalak

Moru, Olaso eta Idotorbe barne hartzen dituen Elgoibarko mendebaldeko ibarretako Paisaiaren Ekintza Plana osatzeko lanak joan den urteko abenduan hasi zituen Elgoibarko Udalak, inguru horretako kontserbazio, antolamendu eta garapen jasangarrirako ekimen "garrantzitsua" delako. Eta etorkizunera begira, Moru Mendiaren inguruko paisaien diagnostikoa egingo dutela azaldu du Udalak. Moru mendian dagoen Burdin Aroko herrixkaren aztarnak, Olaso eta Idotorbe auzoak, eta zonalde horretako Deba ibaiaren ertzak dira aztertuko dituztenak. Halaber, kalitate-paisajistikoaren helburuak ezarriko dituzte. Helburu horiek Elgoibarko biztanleek bere paisaiantzako dituzten asmoak erakutsiko dituzte, eta aldi berean, paisaia horiek ordenatu, kontserbatu eta euren garrantzia nabarmentzeko ekintzak ere definituko dituzte. Prozesu parte-hartzailea antolatu du Udalak egitasmo hau garatzeko, eta hiru saio prestatu dituzte: lehenengoa saio informatiboa, Idotorbe eta inguruko bizilagunentzako. Beste bat, teknikoagoa, paisaia agentei zuzendutakoa, eta, azken herritarrentzako. Azken saio

horretan plana osatuko duten ekintzen hainbat proposamen aurkeztuko dituzte. Apirilean edo maiatzean egitea aurreikusten dute sustatzaileek.

Paisaiaren Ekintza Planaren bidez, Moru mendiaren magalean dagoen Burdin Aroko herrixka bistartzeko egitasmoa berreskuratzeke aukera izango da. Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek 60. hamarkadan aurkitu zituzten Morun Burdin Aroko herrixka baten aztarnak. Gipuzkoan aurkitu diren burdin aroko hiru herrietako bat da Morukoa. Burdin Aroa burdinaren lanketa zabaldu zeneko historiaurreko aroa da, eta kristo aurreko lehen milurtekoa hartzen du. Gure arbasoek leku estrategikoa delako eraiki zuten harresiz inguratutako herrixka Morun, bailararen sarreran dagoelako eta defendatzeko leku oso aproposa delako. Gaur egun harresi haien aztarnak ikus daitezke, Burdin Aroko kastro baten (gutxi gorabehera K.a. 800. urtekoa) aztarnak, esaterako, baina beste zati batzuk lurpean daude. Ondare historiko hau berreskuratzeke auzolanak antolatu zituzten duela urte batzuk



Antolatzaileak Marina Julienerekin.

Neguko eguraldiarekin ospatu zuten Mendaron udaberriaren etorrera

Garai bateko Sasikopotzu ohitura zaharrari lotutako Motxaila Eguna egin zuten zapatuan Mendaron, udaberriaren etorrera ospatzeko. Negu giroa izan zuten, eta euripean egin behar izan zuten Aitzbeltz kobazulora arte dagoen bidea. Lokatzez beteta zegoen gainera eta antolatzailerik Inigo Bastidari eskerrak eman nahi dizkiote bidea errazteko sokak jarri zituelako. 40 lagun inguru batu ziren Aitzbeltzen, eta zuzeneko musika, poesia erreziatdia eta Bilboko Arto Artean kolektibokoek eskainitako antzerki saioa egin zituzten. Leizetik bueltan, bazkaria egin zuten gaztetxean, eta bazkalostean, Urteko Motxaila izendatu zuten Marina Julienerekin. Frantziako Alpeetako herri batekoa da sortzez, baina Donostian bizi da, eta urtero etortzen da Motxaila Eguna. Gero, zuzeneko musika emanaldia eskaini zuen Dardarakustik bikoak, eta Inozentzio pailazoak bere programa politikoaren berri eman zien Gaztetxean batutakoei. Bideoa ikusteko: www.barren.eus

Garagartza auzoa eta Herriko Enparantza lotzen dituen igogailua martxan dago


azko azaroan hasi zituzten Mendaroko Garagartza kalea eta Herriko Enparantza lotzeko igogailua jartzeko lanak eta joan zen astean zabaldu zuten. Etenik gabe, 24 orduz, eskaintzen du zerbitzua eta hamahiru laguntzako lekua dauka. Igogailua martxan badago ere, igogailuaren atzeko horma harriztatze lanak egitea falta dela jakinarazi du Sonia Garcia alkateak, eta lan horiek egin bitartean litekeena dela igogailua pare bat egunez ixtea. Igogailua egiteko lanek 161.100 euroko kostua izan dute, eta harriztatze lanen aurrekontua 38.400 eurokoa da. Jaurlaritzak landa eremuak sustatzeko ematen dituen laguntzetatik 92.214 euro jaso ditu Udalak.

Igogailua egitea erabaki zutenean, erabilera handia izango zuen ekipamendua izango zela adierazi zuen Mendaroko alkateak: "Kontuan izanda Garagartzako kale nagusietan gutxi gorabehera 300 pertsona bizi direla



eta han daudela San Agustin kultur gunea –aisialdi ekintzak eta ikuskizunak egiten dira eta musika eskola ere bertan dago– eta haur-eskola pentsatzen dugu beharra badagoela eta igogailuak erabilera handia izango duela", adierazi zuen Mendaroko alkateak. Hori dela-eta, erabilera egokia egiteko eskatu du, ondo zainduz gero, gehiago iraungo duelako.

Joseba Zinkunegiri omenaldia egin zioten domekan, Eibarren



Joseba Zinkunegi Zinku zenari omenaldia egin zioten domekan Eibarren, ezker abertzaleak antolatuta. Asko izan ziren oholza gainera igo ziren elgoibartarrak, tartean Sortuko idazkari nagusi Arnaldo Otegi. Ezkarain hil zen Joseba Zinkunegi otsailaren 26an, San Lorenzo menditik amilduta (Istripu berean Iker Jausoro ere hil zen). Azken hogeitortan ezker abertzalearen komunikazio arloan (EHAKn eta Sortun) egindako lanagatik ezaguna zen.

Gure Esku Dagok babes mezuak bidaltzeko deia egin du

Gure Esku Dagok maiatzaren 7ko herri kontsulta dauka orain eskuartean, eta horren harira, Elgoibarko talde, elkarte eta herritarrei laguntza eskatu die, herri kontsultako parte-hartzea ahalik eta zabalena izan dadin. Talde, elkarte edota lagun kuadrillei taldeko erretratu ateratzeko edo bideo labur bat grabatzeko eskatu diete, maiatzaren 7ko herri kontsultarekiko atxikimendua erakusteko. Informazio gehiagorako edo materiala bidaltzeko helbidea: elgoibarged@gmail.com.

Gure Esku Dago herri dinamika da, eta hiru printzipio ditu oinarrian: herri bat gara, erabakitze eskubidea dugu eta herritarron garaia da. Printzipio horietan oinarrituta ekin zion ibilbideari, eta ordutik hona hainbat erronkari egin dio aurre. Hurrengo erronka maiatzaren 7ko herri galdeketa izango du.

Udaberriko belarrak ezagutzeko tailerra antolatu dute

Gure ingurunean eta esku-eskura ditugun udaberriko belarrak ezagutzeko tailerra antolatu dute apirilaren 8rako. King-Kong-en elkartuko dira 10:00etan, eta oinez egingo dute ibilaldia, San Roke aldera. Bidean, hainbat landare batuko dituzte, eta gero baserri batean egingo dituzte landare horiek ezagutzeko praktikak. Landareen propietateak eta erabilerak aztertuko dituzte. Irteera doan izango da, baina izena emateko eskatu dute antolatzaileek. Surya belar dendan eman behar da izena: 943 742 534 / 630 878 054



Quin Zhao Kun, Cao Chun Heng eta Wang Yi Ran.

'Ni hao', Elgoibar

IMHk 2003. urtean hasi zuen Tianjineko CSMC eskolarekin lankidetzeta, AFMren eskutik. CSMC Tianjin Ikastetxe Teknikoa handitzea, egokitzea eta Prestakuntza Iraunkorreko saila martxan jartzea izan zen lehen eginkizuna. Orduz gero, ikastetxeko hainbat zuzendari eta irakasle talde prestatu dituzte bai IMHn eta baita Tianjinen ere, zentroaren funtzionamendu egokia mantentzeko. Cao Chun Heng, Wang Yi Ran eta Qin Zhao Kun ikasle txinatarrek Fabrikazio Mekanikoko Produksioaren Programazioko zikloa amaitu zuten iaz CSMC -Tianjineko eskolan, eta, orain prestatuntza berezia jasotzen dihardute IMHn. Prestakuntza horren helburua da hizkuntzak ikasi eta oinarrizko ezagutza zientifikoak eskuratzea, ondoren, IMHren Ingeniaritza Dualaren Unibertsitate Eskolan ikasi ahal izateko aukera izan dezaten.

- AINHOA ANDONEGI -

Ez dira oharkabeen pasa Elgoibarko kaleetan. Hiru txinatar gazte, beti elkarrekin: Tabernetan, erosketak egiten edo saskibaloian jokatzen ikusi ditugu. Beti pozik eta irribarrertsu. Horrela hartu gaituzte IMHn ere. Lotsatiak dira, baina hala ere ez dute irribarrerik galtzen. Grafia txinatarrez idatzi dituzte beraien izenak paper batean, eta alboan idatzi dituzte euren izenak guk ulertzeko moduan: Quin Zhao Kun, Wang Yi Ran eta Cao Chun Heng dira. Baina badakite, hala ere, beraien izenak konplikatua direla guretzat, eta beste izen bana hartu dute, irakasleekin, gainerako ikasleekin eta herritarrekin komunikazioa errazteko: Diego, Erik eta Emilio izenez aurkezten dira kalean.

Diego eta Erik Tianjinekoak dira, eta Emilio berriz, Mongoliakoak. 22, 21 eta 24 urte dituzte hurrenez hurren, eta hirurak mekanizazio

alorreko ikasleak dira, Tianjineko CSMC eskolan. lazko urrian iritsi ziren Elgoibarrera, eta ekainera arte egongo dira gure artean. Lehenengo lana ingelesa eta gaztelania ikastea da, eta horretan dihardute burubelari, ILS-ko irakasleekin. Horrez gain, matematika eskolak ere jasotzen dituzte. Helburua da gutxieneko jakintza maila eskuratzea ikasgai horietan, datorren urtean Ingeniaritza Duala egin ahal izateko. Ikasturte amaieran azterketa egingo diete, eta lortzen duten emaitzen arabera, datorren ikasturtean berriz itzultzeko aukera izango dute.

Irakasleek ez dakite txineraz, eta ikasleek ez dakite gaztelaniaz, ingelesez edota euskaraz. Baina zeinu-hizkuntzak hitz egiteak beste balio du askotan, eta oraingoan ere hala izan da. Zeinuak ezinbestekoak izan dira komunikatzeko. Gaztelania irakasteko hiru irakasle dituzte, ingeleseko bi eta matematiketako bat.



Zerura begiratzean izarrak ikustea izugarria iruditu zaie

Lehentasuna gaztelania ikastea jarri du ikastetxeak, eta apur bat hizkuntza menperatu dutenean hasi dira matematikarekin. Asteazkero 30 orduz izaten dituzte eskolak. Matematika gaztelaraz ikastea zaila dela aitortu dute. Berez matematika ikasgaia gustatzen zaie, zientzietako ikasleak dira eta ondo moldatzen dira zenbaki artean, baina matematikak berezko hizkuntza propioa dauka, eta gaztelaniaz asko kostatzen zaie kontzeptuak barnertzea. Irakasleekin harreman "ona" dute. Irakasleek esan dute asko saiatzen direla eta oso pozik agertu dira hiru ikasleek erakusten duten jarrerarekin.

GUSTURA, ELGOIBARREN

Elgoibarren gustura daude. Herri txikia da beraien bizilekuarekin alderatuta, eta hori gustatu zaie. Tianjinen 1.300.000 lagun bizi dira, eta euren eskolan, 11.000 lagun. Han bizi dira eurak ere, eskolako egoitzan. Elgoibarko biztanle guztiak kabitzen dira euren eskolan, eta harekin alderatuta herri oso lasaia iruditzen zaie Elgoibar, bizitzeko oso aproposa. Jendea jatorra eta atsegina iruditu zaie, eta kalean jendeak "kaixo" esaten diela esan dute barrez, euskarazko hitz solte batzuk ere ikasi dituztela erakusteko: *kaixo, agur, polita, eskerrik asko, Pitxintxu...* Hala ere, lagunak egiteko zailtasunak dituztela azaldu dute, eta jende askok denda edo jatetxe txinatarrekoak direla uste dute: "Jendeak ez daki ikasleak garela". Hirurak etxe batean bizi dira, eta sukaldean aritu baino, tabernan bazkaltzea gustatzen zaie. Euskal Herriko gastronomiak harritu egin ditu, eta orain arte inoiz jan gabeko janari

asko probatu dituzte. Beraien gustukuenak txuleta, txapiroak tinta beltzean, ogitartekoak eta enpanada dira. Eta edarien artean ardo beltza eta patxarana nabarmendu dituzte.

Asteburuetan gustatzen zaie aisialdiaz gozatzea. Trena hartu eta Zarautz, Donostia edota Bilbora joaten dira tarteka. Tabernetako giroa gustatzen zaie, garagardoa edatea eta dantzari egitea, eta Mintxetan saskibaloian jokatzen ere ibiltzen dira sarri. Futbola ere gustuko dute, eta telebistaz ikusten dituzte futbol partidak, etxean edo tabernetan. Realzaleak egin direla aitortu dute. Txinan futbolak ez dauka arrakasta handirik, eta beraien ere orain deskubritu dute. Futbolaren bueltan sortzen den giroak harritu ditu, eta gustatu zaie.

Txina eta Euskal Herria oso urrun daude elkarrengandik, eta oso desberdinak dira, baina erraz ohitu dira hemengo ohituretara. Txinan oso goiz afaltzen dute, 18:00ak aldera, eta hasieran arraroa egiten zitzairen 21:00ak alde horretan afaltzea, gauz irteteko hemen lasaitasun handiagoa dago, Txinan arrisku gehiago ikusten dute. Han diskotekara eta Karaokea duten tabernetara joaten dira, billarrea ere jokatzen dute, eta bikotekidearekin irteteko ohitura ere badute.

Era berean, arraroa egiten zitzairen igandetan herriko komertzio eta dendak itxia ikustea, Txinan egunero egoten direlako zabalik. Baina dudarik gabe, eurentzako harrigarriena izarrak ikustea izan da. Aire garbiagoa arnasten dutela nabaritu dute, eta gauz zerura begiratu eta izarrak ikustea izugarria irudi zaie. Hori Tianjinen pentsaezina da. Argitasun handia dago hirian bertan, eta airea gainera oso kutsatuta dago, hautsa dago airean eta ez dira izarrak ikusten. "Oso polita da izarrak ikustea, erromantikoa".

Senide eta lagunekin gogoratzen dira sarri, baina teknologiari esker gaur egun distantziak motzak dira. Telefonoari eta Skype-i esker, erraz hitz egiten dute etxekoekin, eta bideokonferentziaz elkar ikusteko aukera ere baliatzen dute. Gurasoak oso pozik daude euren semeek izan duten aukera honekin. Haien iritziz, oso garrantzitsua eta interesgarria da Europako ikastetxe batean formatzea, eta etorkizunari begira ate asko zabalitzeko aukera emango diela uste dute. Etorkizunean Ingeniaritza Mekanikoa egitea gustatuko litzaieke, eta alor horretan IMHk prestigio handia dauka Tianjinen. Eskolako ikasle guztien artean eurak ziren ikasle onenak, emaitza onenak zituztenak eta horregatik aukeratu zituzten eurak hona etortzeko. Elgoibarrera etortzeko aukera hori "loteria tokatzea modukoa" izan da beraiarentzat. Hasieran beldur pixkat sentitu zuten, batez ere hizkuntza ez zutelako menperatzen, eta hona etortzeko erabakia hartzea ez zen erraza izan. Baina, orain, oso pozik daude, eta ez dira damutu hartutako erabakiaz.




Mundu bat KORRIKA

Badator Korrika. Atzo abiatu zen euskararen aldeko AEKren bi urtean behingo egitasmoa, Otxandion, eta apirilaren 9an bukatuko da Iruñean, Euskal Herri osoko bideak eta errepideak zeharkatu ostean. Tarte horretan, milaka lagun irtengo dira bidera, euskara hizkuntza, kultura eta mundu bat dela aldarrikatzera. Elgoibarrera, asteazkenean, apirilaren 5ean, iritsiko da Korrika, Azkaratetik, eta Elgoibarko erdigunea zeharkatu ostean, Mendarora joango da. Ondo bidean, 6:20an hartuko du Elgoibarrek lekukoa Azkarateko gainean, eta 7:00ak aldera iritsiko da herrigunera, Maalara. Han egingo zaio ongietorria, Mauxitxa txarangarekin. Mendarora, berriz, 7:40ak aldera iritsiko dela iragarri dute, eta Lanbi parean hartuko diote lekukoa mendarorrek elgoibartarrei. Euskarazko hedabideok –tartearen *barren.eus* webguneak– saio bateratua eskaini genuen atzo Korrikaren hasieran, eta bukaeran ere hala egingo dugu.

- AINARA ARGOITIA -

Hogeigarren aldiz zeharkatuko du Korrikak Euskal Herria. 1980an Euskal Herria Oñatitik Bilbora zeharkatu zuen lehen Korrika antolatuta zutenetik, euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuenetakoa da. Orduetik, 19 Korrika eta 37 urte igaro dira, baina orduko helburu berari eutsiko dio AEK-k hogeigarren Korrikan ere. Ohi legez, bi helburu nagusi izango ditu Korrikak: batetik, gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea, eta bestetik, gau-eskola zein eskualtegiaren eguneroko lana indartzeko dirua biltzea. Eta ohi legez, fin erantzun dute herritarrek, kilometroak eta Korrikaren aldeko materiala erosiz. Bederatzi kilometro saldu dira Mendaron, eta 23 taldek egin dute diru-ekarpena Elgoibarren. Guztira, 2.535 kilometro egingo ditu Korrikak Euskal Herriko zazpi lurraldeetan barrena, eta 235 ordu eta erdi beharko ditu ibilbidea osatzeko. Eta bidean, hamaika aldiz entzungo da Uxue Alberdik idatzi eta Zabier Zabalak musikaturako *Zirkorrika* kantua.

Jaia eta aldarrikapena batuko ditu Korrikak. "Euskara da hemen bertoko hizkuntza, eta euskara da gure kultur izaera eta munduan nor izateko modua". Horixe izango da, beste behin, euskarak zabalduko duen mezua. *Bat zuk* da aurtengo leloa, eta Korrikaren sortzaileak omenduko ditu AEK-k, euskararen aldeko ekintzarik handiena eta parte-hartzaileena bihurtu denaren antolatzaileak. Euskal Herria euskalduntzeko asmoz sortu zuten Korrika duela 37 urte AEK-ko eta AEKtik kanpoko hainbat lagunek, baina gaur oraindik, horixe du Korrikak helburu nagusia, euskarak ez duelako oraindik egoera normaldua. "Ez da lortu euskararen egoera normalizatzerik, baina euskarak, eta Korrikak, batu egin gaitu euskaltzaleok; batu egiten gaitu eta batuko gaitu", adierazi zuten Korrikaren antolatzaileek aurkezpenean.



Beste Korrikak

Korrika nagusiarekin batera, Korrika txikiak ere egingo dira apirilaren 5ean Elgoibarren eta Mendaron, eta Elgoibarren baita Korrika Gaztea ere.

ELGOIBARKO IBILBIDEA.....

- ◆ AEK euskaltegia (Azkarate)
- ◆ Surya belar denda (Azkarate erdiko zubipea. 36. km)
- ◆ Etxepe (37.km)
- ◆ Danobat Koop. (Larrialdi bidea. 38.km)
- ◆ Ideko Koop. (Arriagako biribilgunea)
- ◆ Alcortako LABeko sail sindikala (Argindar zentrala)
- ◆ Haritz Euskal Dantzari Taldea (tren tunela)
- ◆ IMH-Herri Eskola-Meka, BH Institutua-Haur Eskola (La Perla taberna)
- ◆ Mautitxa txaranga (Txarriduneko biribilgunea)
- ◆ San Lazaro egoitza (fruta denda)
- ◆ Elgoibarko Udaleko Euskara Saila (Quintin)
- ◆ Elgoibarko Udaleko langileak (Fadec)
- ◆ Felix Etxeberria (Ardandegia)
- ◆ Elgoibarko Izarra (Armuetza)
- ◆ Elgoibar Ikastola (King Kong)
- ◆ EHBildu (On Informatika)
- ◆ EAJ (La Perla taberna)
- ◆ Sanloko partaideak (Mataderoko aparkalekua)
- ◆ Txankakua Elgoibarko Merkataria eta Zerbitzu Elkarte (tren tunela)
- ◆ Gazte Asanblada (Argindar zentrala)
- ◆ Rodisako LABekoak (Arriaga industrialdea)
- ◆ Kimetz elkarte (Altzolako Mendarorako bus geltokia)
- ◆ Haizea Emakume Taldea (Altzolako araztegia)

MENDARO.....

- ◆ Mendaroko ospitala /ESI Debarrena (Lanbi tailer parean)
- ◆ Motxaila Band (Quiva)
- ◆ Motxaila elkarte (Opel zegoen lekuan)
- ◆ Mendaro Ikastola (Zubi bukaeran)
- ◆ Arno Guraso Elkarte (Lasaitze parean)
- ◆ Musika eskola (Zubi hasieran, udaletxe ondoan)
- ◆ Giza proba taldea (Mari Asunen denda parean)
- ◆ Kilimon, Aizpe eta Bustin-Alde elkarteak (Arranbidetik autopista azpira)
- ◆ Gazte asanblada (autopista azpia)
- ◆ Mendaroko Txirindulari Elkarte (Geoparkeko seinale parean)
- ◆ Mendaroko Udala (Txatarrerria paretik Sasiolaraino. Sasiolan debarrek hartuko dute lekukoa)

KORRIKA TXIKIA ELGOIBARREN.....

Elgoibar Ikastolak eta Herri Eskolak elkarlanean antolatu dute Elgoibarko Korrika Txikia eta Maalatik Kalegoen plazara arteko bidea egingo dute elkarrekin. San Lazaro egoitzakoek ere jarriko dute euren alea aurtengo Korrika txikian. Haiiek emango diete lekukoa eskola-umeei. Hasi, baina, Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoek hasiko dute ibilbidea, 10:30ean, Maalan, eta King Kongen LH5ekoak batuko zaizkie. Ondoren, LH4koak gehituko zaizkie, Kalegoen plazan, eta Santa Ana kaleko Eroskin LH3koek hartuko dute lekukoa. Handik Kalegoen plazara artekoa egingo dute denek, eta plazan, LH2koak batuko zaizkie, eta azkeneko zatian, Kultur Etxe parean, LH1ekoak. Plazan amaituko dute Korrika Txikia. Jai-giroan emango diete azkena. Bi ikastetxeetako ikasleek hiru kantu dantzatuko dituzte elkarrekin: *Euskararen Txantxan-gorria*, *Beitxu, beitxu!* eta Pirritx eta Porrotxen *Tipi-tapa*, Korrika. Bukaerako ekitaldian Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika aisialdi taldeak ere parte hartuko du. 11:00ak aldera dira iristekoak haurrak plazara. Eguraldi txarra egingo balu, Maalako estalpean hasi eta bukatuko lukete Korrika Txikia.

Haur Hezkuntzako ikasleek ere egingo dute Korrika, arratsaldean. Herri Eskolako Haur Hezkuntzako haurrek 14:45ean hasiko dute lasterketa ikastetxe gaineko aparkalekuan eta mailaz maila batuko zaizkie gero gainerako ikaskideak. HH5ekoak abiatuko dute Korrika eta aparkalekuan bertan, metro batzuk aurrerago, HH4koak batuko zaizkie, eta txanpinoian, HH3koak. Herri Eskolako estalpean bukatuko dute Korrika Txiki-txikia. Ikastolako txikienek, beriz, ikastetxe barruan egingo dute Korrika. Ordua zehazteke dago oraindik, baina 15:00ak aldera izango da. Era berean, Korrikaren aldeko diru-bilketa ere egin dute Ikastolan, kilometroa erosteaz gain. Irakasle bakoitzak hamarna euro jarri ditu eta gurasoei, euro bateko ekarpena eskatu diete Korrika babesteko.

KORRIKA TXIKIA MENDARON.....

Ikastola parean abiatuko da Korrika Txikia, 11:15etan, eta ondorengo ibilbidea osatuko dute, lekukoa eskuz esku pasatuz. Ikastola parean hasiko dute korrika Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoek eta Mendarozabalera joko dute. Han buelta eman eta San Jose plaza gurutzatuko dute gero, eta ikastola parean, LH5eko ikasleei emango diete lekukoa. Errepide nagusia azpitik gurutzatuko dute gero bi taldeek Itzarba-koitzan gora eginda Azpilgoetan sartzeko, eta aldapa hasieran, LH4ko ikasleak batuko zaizkie. Azpilgoetako eliza aurrean batuko zaizkie gero LH3koak, eta zubi hasieran, LH2koak. Zubi bukaeran batuko zaizkie LH1eko ikasleak eta Coviran haurrean Haur Hezkuntzako azken mailakoak, 5 urtekoak. Tren geltoki parean 4 urtekoak gehituko zaizkie tropelari eta ikastolan bukatuko dute korrika txikia, kalejira batekin. Ikastolako arrapala hasieran 3 urteko neska-mutilak sartuko dira taldera, eta patio nagusiko sarreran, 2 urtekoak. Mendaro Ikastolak antolatu du Korrika Txikia, Arno guraso elkarteko laguntzarekin. Eguraldi txarra iragarriko balute egun honetarako, bezperan jakinaraziko luke zuzendaritzak Einika bidez zer irtenbide proposatzen duen.

KORRIKA GAZTEA.....

Korrika Elgoibarrera etorri den hiru aldietan egin duten bezala, Korrika Gaztea antolatu dute IMHk, Mekak, Elgoibar BHI institutuak eta Elgoibar Ikastolak, AEKrekin eta Elgoibarko Udaleko Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan. 12:00etan hasiko dute Korrika Gaztea Meka Albitzurin eta honako ibilbidea osatuko dute: Albitzuri, Melitongo zubia, Ikastola, IMH, Mintxetako gaina, Meka, Arreiturre Institutua, Olaizaga kiroldegia, Makina-erremintaren museoa eta IMHko portxea. Bukaeran, adierazpen bat irakurriko dute, eta ikastetxe bakoitzeko ikasleek aurrez prestatutako koplak ere abestuko diituzte. 13:00etarako bukatzea aurreikusten dute.

Txikibarren

Zergatik daude hainbeste izar zeruan?



Jon Garate
(Elgoibar, 6 urte)

Argia emateko daude, gavez ematen dute argia. Argitasun handia ematen dute. Egunez ez dugu argirik behar eta horregatik ez dira ikusten izarrak. Nik ez diet izarrei begiratzen. Ilargiari bai, begiratzen diot; biribila da.

Nadir Lharrak
(Elgoibar, 7 urte)

Zeruan jaiotzen direlako daude han. Egunez argi asko egoten da eta izarrak ikusteko iluntasuna behar da. Horregatik egunez ez dira ikusten. Gavean zeruko argia itzaltzen da, eta izarrak pizten dira. Euria egiten duenean ez dira ikusten.



Aitana Luke
(Elgoibar, 6 urte)

Hori da euren lekua, nik beti zeruan ikusten ditut. Ez dakit! Egunez zeruak tapatzen ditu izarrak, eta ezin dira ikusi. Zeru beltza jartzen denean pizten dira izarrak. Eguraldi ona egiten duenean izar pila bat egoten dira. Niri asko gustatzen zaizkit, oso politak dira.



Duna Santos
(Elgoibar, 7 urte)

Gavean argitasun pixkat emateko, ilun dagoenean ikusteko. Egunez eguzkia egoten da, eta eguzkia joaten denean irteten dira izarrak eta ilargia. Izarrak egunez ere ikusten dira; eguzkia ere izar bat da, izar handiena. Besteak txikiagoak dira.



Alai Romero
(Elgoibar, 7 urte)

Gavez argia emateko. Egunez ez dira ikusten, baina hor daude. Gavez argia itzali egiten da, eta orduan ikusten dira izarrak. Zeru urdina dagoenean ez dira ikusten, baina asko daude. Ezin dira kontatu. Niri gustatzen zaizkit.



Iago Fernandez
(Elgoibar, 7 urte)

Zeruan bizi dira. Gavez bakarrik ikusten dira, baina hor daude beti. Nik badaukat liburua planetena eta izarrena. Planetak espazioan bizi dira, eta izarrak zeruan. Planeten izenak badakizkit: Mercurio, Venus, Lurra, Marte, Jupiter, Saturno, Neptuno eta Pluton. Baina bueno, Pluton ez dakit planeta den.





Ivan Migales
(11 urte, biloba)



Juana Ordoñez
(71 urte, amona)

Lagunekin ibiltzen naiz kalean, ezkutaketan edo harrapaketan jolasten.

Zertan jolasten duzu denbora librean?

Karta jokoan ibiltzen naiz eta rummiku ere asko gustatzen zait. Burua lantzeko oso ona da. Bilobekin puzzleak ere egiten ditut noizean behin.

Soltea. Euskal dantzan nabil, gustatzen zait dantza egitea.

Dantza soltea ala heldutakoa?

Heldutakoa. Ez dut dantza asko egiten, baina ahal dudanean, helduta egitea gustatzen zait.

Denetik entzuten dut, baina azkenaldian asko entzuten dut Michael Jackson.

Zein musika duzu gustuko?

Kopla gustatzen zait bereziki. Azkenaldian sevillanak ere asko entzuten ditut. Andaluziarra naiz, hori zainetan daramat.

'Aida'. Barre egiteko telesailak gustatzen zaizkit.

Telebistako saio gustukuena?

Ez dut telebistarik ikusten, nahiago dut beste edozer egin.

Autoa edukitzeko eta kalean berandura arte geratzeko.

Zertarako nahiko zenuke 18 urte izatea?

Bizi izandako guztia berriz ere bizitzeko. Etapa gogorrak ere izan ditut, baina ez nuke nire bizitza aldatuko.

Bai. Aspaldi oparitu zidaten, eta batez ere jolasteko erabiltzen dut. Baina telefono gabe ere egon ahal naiz.

Biziko zinateke eskuko telefonorik gabe?

Bai. Poltsikoan daukat oraintxe, dei baten zain nagoelako, baina biziko nintzateke hori gabe ere.

Bonbila. Bonbilarik gabe ez genuke oso ondo ikusiko.

Zein izan da asmakizunik onena?

Erropa garbigailua. Bost seme-alaba izan ditut! Pentsa!

Ez naiz inoiz baserrian bizi izan. Probatuko nuke!

Bizitzeko, kalea ala baserria?


Baserria. Landagunean bizi izandakoa naiz eta asko gustatzen zait bizimodu hori.



Euskaltzaleon Topagunearen euskarazko film laburren zirkuitua, Laburbira, apirilaren 4an iritsiko da Elgoibarrera

Laburbira apirilaren 4an, asteartean, iritsiko da Elgoibarrera. 2003an sortu zuen Laburbira Euskaltzaleon Topaguneak, euskarazko film laburrak ezagutarazteko, euskarazko kalitatezko lanak zabaltzeko, eta aurten, zortzi ekoizpenez gozatzeko aukera eskainiko digu Elgoibarren. Elgoibarko Udalak, AEK euskaltegiak eta Elgoibarko Iza-rra Euskaltzaleon Topaguneak antolatu dute Elgoibarko saioa. Emanaldia, 75 minutukoa, Kultur Etxean izango da, 19:00etatik aurrera, eta sarrera doan izango da.

Euskarazko zortzi film labur izango dira. Honako hauek: *Azken saskia* (*Oier Fuentes*), *Beti bezperako koplak* (*Ageda koplak taldea*), *Ihesa* (*Alejandro Diaz Castaño*), *Elemakarrak* (*Ibon Iza*), *Jalgi* (*Eki Pagoaga*), *280º* (*Uda films*), *Euspot* (lehiaketako spot onenak) eta *Hileta* (*Kepa Sojo*).



'Gurean.eus' jaio da, tokiko komunikabideen albisteak gaika emateko

*Gurean.eus*ek Tokikom osatzen duten 60 toki komunikabideen edizio digitaleko edukiak batu eta gaika antolatuta ematen ditu. Komunikabide horien artean dago *barren.eus* ere. Gertuko errealitatearen leiho globala eskaintzen du beraz.

"Euskaraz pentsatu, sentitu eta bizi zara; Gurean zara". Horrela aurkeztu du Tokikomek *Gurean.eus*. 60 toki komunikabideren edizio digitalek sortutako albiste guztiak bateratzen ditu, komunikabide jeneralisten ohiko sailetan antolatuta: gizartea, ekonomia, kultura, kirola, politika, ekitaldiak, euskara... Modu horretara egunerokoaren ikuspegi guztiz ezberdina erakutsiko dio publikoari, gertutasunean oinarrituta, ohiko medioen agendetatik kanpo geratzen diren gaiak azaleratuz. Gainera, sarean dagoen elkarlanerako gune irekia ere izan nahi du, gai berberaren gainean hainbat komunikabidek sortutako kronika eta analisei zein Tokikom osatzen duten komunikabideen 250.000 ohiko irakurle eta erabiltzaileen iritzia eta ekarpenei esker. Sarrerako pentsatutako komunikabidea da, bereziki sakelako telefonoetatik kontsultatu ahal izateko sortua.

Elgoibarren jokatu da Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa, bihar eta etzi

Elgoibarko Herriko Antzokian jokatu da Elgoibarko Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa, bihar eta etzi. Guztira, 58 dantzarik parte hartuko dute, eta horien artean Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako hamabi ordezkari ere ariko dira.

Ohi duten legez, bi jardunaldi jokatu dituzte: zapatuan, A saileko (7-11 urte) neska-mutilak lehiatuko dira, 16:00etatik aurrera. Irune Arriola eta Nahia Urbiola nesketan, eta, Eneko Etxaniz eta Jon Etxeberria, mutiletan, izango dira Elgoibarko ordezkariak. Domekan, berriz, B sailekoen (11-15 urte artekoak) txanda izango da. Goizez izango da domekako saioa, 11:00etan hasita. Gure ordezkariak dagokienez, Maddi Za-

bala, Irati Marcos, Jone Gil, Amaia Sasiain eta Oihane Agirrebeña, arituko dira, Soinu Zaharrean, eta aurrekuan, berriz, Aimar Almortza, Gaizka Uranga eta Markel Goenaga.

Altsasuko saioa

Altsasun jokatu zuten Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketako azkeneko jardunaldia, joan zen asteburuan, eta Elgoibartik Amaia Sasiain, Irati Marcos, Markel Goenaga, Aimar Almortza, Gaizka Uranga eta Jone Gil lehiatu ziren. Eskolako arduradunen esanetan, maila onean aritu ziren denak. Jone Gilentzat, gainera, txapelketa batean parte hartzen zuen estreinako aldia izan zen.



▶ Hasier Etxebarria idazlea hil da

Ekitaldi zibila egingo dute gaur, 19:00etan, Kalegoen plazan

Hasier Etxebarria (Elgoibar, 1957) hil zen eguaztenean, minbiziak jota. 59 urte zituen. Kazetari, gidoilari, aurkezle eta idazlea zen, besteak beste, eta BARRE-Neko kolaboratzailea ere izan zen hasierako urteetan.



JASONE OSORO

Hasier handia

Iazko irailean jakinarazi zuen Hasier Etxebarriak bere blogean minbizia zuela. *Zuzeu* atarian *Minbizia dut* izenburupean idatzitako sarreran, gogora ekarri zuen orain dela 25 urte ere izan zuela gaixotasun hori. Osatu zen orduan, baina kartzinoma "bortitzago, biziago, erasokorrago" birsortu zitzaion oraingoa.

Kulturgintzarekin eta euskalgintzarekin harreman estua izan zuen, eta besteak beste, kazetari, gidoilari, aurkezle eta idazlea izan zen. Narrazio, nobela nahiz haur eta literaturako liburu ugari idatzi zituen eta horiei esker hainbat sari irabazi zituen gainera. Aipatzekoa da, besteak beste, Elgoibarko Etxepe Literatura Sarien estreinako edizioa (1982) berak irabazi zuela. Horrez gain, Bilintx haur eta gazte literatura saria (1987) eskuratu zuen *Estatua baten historia* lanari esker; Julene Azpeitia ipuingintza saria (1992) *Aukera profesionala*-gatik; Gabriel Aresti saria (1997) *Ipuin postmoderno bat egin diot nire buruari* liburuagatik eta Irun Hiria Saria (1999) *Arrainak ura baino* liburuagatik.

1988an idatzi zuen bere lehen eleberria, *Mugetan*, eta 2003an, beriz, *Eulien bazka*. *Bost idazle Hasier Etxebarriarekin berbetan* liburu ere kaleratu zuen, Bernardo Atxaga, Koldo Izagirre, Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria eta Joseba Sarrionandia idazleekin luzezabal izandako elkarrizketak batuta. Era berean, *Antso Erregea* antzezlan ere idatzi zuen.

Telebista aurkezle lanetan aritu zen ETBn 1983az geroztik. *Zopa haundi*, *Arkupe*, *Farenheit*, *Beti eskamak kentzen*, *Babel* eta *Ez dago larrosarik* saioetan aritu zen, baina telebistan eginiko ibilbidea *Sautrela* literatura saiora egon da bereziki lotuta. 1999. urtean programa estreinatu zuten, eta 2012ra arte aritu zen etengabe. Etxebarria zen zuzendari eta aurkezle. Urtebete programaziotik kanpo egon ostean, 2013an berrezarri zuten, eta 2016an, Etxebarria ordurako gaixo zegoela, Beñat Sarasolak ordezkatu zuen aurkezle gisa.

1993an, Rikardo Arregi kazetaritza saria irabazi zuen, eta 2012an, beriz, *Sautrela* saioari eman zioten sari horretako aipamen berezia. *Euskaldunon Egunkaria*-ren sorreran parte hartu zuen, eta, 2009an, *ZuZeu* ataria eratu zuen, azken egunetara arte elikatzen jardun duena.

1993 urte inguruko argazkia, **BARREN** aldizkariaren sorreran parte parte hartu zuten lagunek Idotorben egin zuten bazkarian. Tartean zen Hasier Etxebarria, goian, ezkerrean.



Pertsona batzuk suntsiezinak zirela uste nuen txikitan. Haietako bat zen Hasier: handia. Elgoibarko hainbat gaztek Urruzuno literatura taldea osatu genuenean, Hasierrek, eskuzabal, bere eskuizkribu bat bidali zigun, berak eginiko zuzenketekin. *Tentazioak* argitaratu nuen urtean, Txiki Egun batez egin genuen topo eta oraindik ikasteko asko nuela esan zidan. Haserretu egin nintzen, nire txikitasunean gizon handiaren hitzek minduta. Telebistarako lehen pausoak berari esker eman nituen, berak deitu baitzidan Canal Cocina katerako aurkezle-gidoilaria behar zutela eta froga egitera joteko. Gogoan ditut ETBko pasilloetan gurutzatutako berbeta zirikatzaileak, *Sautrelan* egindako galdera polemikoak, nola kontatzen zuten idazle baten obrari buruz zuten iritzia (kritikoa), nola konplize egiten zintuen bere bizitza sentimentala konpartituz (beti elgoibartarrez), nola aitortzen zuten ez zuela aspaldian idatzi ez zelako gai ikusten berak egin nahi zuten kalitatezko literatura egiteko, nola ez zuten ulertzen zenbaitzuk bere kontra zuten jarrera. Denborarekin ikasi nuen gizon handi ustez suntsiezin haren barruan gordetzen zen ume txiki hauskorra ikusten. Denborarekin ikasi nuen Hasierrri kariñoa hartzen.

Imanol Alvarez txirrindulariak laugarren egin zuen etxeko lasterketan



Elgoibarko Hiria Saria txirrindulari proba jokatu zuten domekan. Elgoibarko Lagun Taldekoek auto istripuan zendu zen Iker Amutxastegi izan zuten gogoan, proba hasi aurretik. Gero, junior mailako 112 txirrindularik parte hartu zuten 92 kilometroko lasterketan. Unai Iribar (Limousin Kartoiak-Oriako) izan zen azkarrena, eta ihes eginda ailegatu zen Santa Klaran zegoen helmugara. Imanol Alvarez (Ciclos Iturriaga) txirrindulari elgoibartarrak laugarren postua eskuratu zuen. Taldekako sailkapenean hirugarren postua eskuratu zuten elgoibartarrek. Lagun Taldekoek jakinarazi dutenez, Gipuzkoako selekzioaren deia jaso dute Imanol Alvarez eta Jon Astigarraga taldekideek.

40 lagun inguruk parte hartu zuten Mendaro bizikleta gainean ezagutzeko irteeran



Mendaroko Arno Guraso Elkarteak antolatuta, *Mendaro Bizikletaz* irteeran parte hartu zuten 40 bat lagunek, ume eta nagusi, joan zen domekan. Familian egiteko mendi-irteerak antolatzen ditu, besteak beste, Arno Guraso Elkarteak, baina oraingoan mendi tontorrek alde batera laga eta bizikleta hartuta Mendaron barrera bueltatxo bat ematea erabaki zuten. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, herritik kanpora ere nahi dituzte mendi-bizikleta irteerak antolatu, Azkoitia eta Zumarraga lotzen dituen bidegorrira edo Ulibarri Ganboara, esaterako. Azaldu dute asmo horien berri arnogara.wordpress.com web orrian edo Facebook sare sozialean duten orrian emango dituztela. Argazki gehiago: www.barren.eus



Asteon hasi dira emakumeen eta gizonen pala txapelketak

Emakumeen binakako pala txapelketa antolatu dute Elgoibarren seigarren urtez jarraian, eta horrekin batera gizonen pala txapelketa ere antolatu dute bigarrenkoz. 26 bikotek eman dute izena lehenengoan eta hamar bikotek bigarrenkoan. Martitzenean hasi zen txapelketa eta finalak ekainaren 23an jokatuko dituzte. Kalegoen plazako frontoian jokatuko dituzte partidak, teniseko pilotarekin.

Kranpoiekin modu seguruan ibiltzen ikasteko ikastaroa

Arriskuak kudeatu. Ikasi kranpoiekin aurrera egiten modu seguruan izeneko ikastaroa antolatu du Morkaiko mendi taldeak. Mendian kranpoiekin ibiltzen den edozein mendizalari zuzendua da goela azaldu dute. "Kranpoiak asko nahiz gutxi jantzen dituzten mendizaleei, baina baita sekula jantzi ez dituenari ere". Bi atal izango ditu ikastaroak. Josu Merino mendizale elgoibartarra ardurtuko da atal teorikoaz: apirilaren 3an, astelehenean, Elgoibarko Kultur Etxean (19:00). Atal praktikoa, berriz, apirilaren 4tik 7ra bitarteko egun batean egingo dute –izena ematen duten lagunen artean zehaztuko dute eguna-. Informazio gehiago eta izena emateko, Morkaikoren egoitzan (ostegunetan, 19:00etatik 20:30era) edo morkaiko@morkaiko.eus helbidera idatzita.

Jose Gurrutxagarik gabeko lehen krosa, domekan



Jose Gurrutxaga krosaren aurtengo edizioa berezia izango dela jakitera eman du Elgoibar Ikastolak. Domeka honetan (apirilak 2) jokatu da 24. edizioa, eta hil diren hiru pertsona izango dituzte gogoan. Batetik, Jose Gurrutxaga bera, korrikalari ezaguna eta krosari izena eman ziona. Bestetik, urteetan kronometratazaila lanak burutu zituen Ricardo Garate. Eta, azkenik, Elgoibar Ikastolak antolatzen dituen hainbat ekintzetan esatari lanetan aritu izan zen Angel Iriondo. Dagoeneko 750 korrikalari daude izena emanda, eta azkenengo karreran parte hartu nahi dutenek 12:00ak aurretik eman ahalko dute izena udaletxeko arkupeetan. Azken lasterketa horretan 2000. urtea baino lehen jaiotako edonork hartu dezake parte.

Concepto Egilek meritu handiko berdinketa lortu zuen bigarren sailkatuaren aurka

Jubenil nesken Euskadiko Txapelketako 4ko Finala jokatu dute asteburu honetan Elgoibarren, Olaizaga kiroldegian. Sanlo Eskubaloi Kirol Taldeko Tecnifuellek zaleen aurrean jokatu du Aiala Zarautz, Zuazo eta San Adrian taldeen aurka. Lehen partida gaur jokatu dute elgoibartarrek, 19:30ean, Zarautzko Aiala taldearen aurka. Zapatuan San Adrian taldearekin neurtuko dituzte indarrak, 17:45ean. Domekan, azkenik, Zuazoren aurka jokatu dute, 13:00etan.



Emaitzak

FUTBOLA

Ostadar 0 – Haundi 1 (Oho. erreg.)
Elgoibar 4 – Ordizia 2 (1. erreg.)
Villabona 6 – Elgoibar 2 (Oho. jub.)
Elgoibar 1 – Bergara 1 (Jub. 1. maila)
Elgoibar 4 – Real Sociedad 1 (Oho. kad.)
Elgoibar 1 – Villabona 2 (Inf. 1.maila)
Ordizia 0 – Elgoibar 3 (Infantil Txiki)
Elgoibar 4 – Aloña Mendi 3 (Aleb. errend.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 4 – Pinseque 4 (Nazional B)

SASKIBALOAIA

Viento Sur 75 – Alde Zaharra B 43

ESKUBALOAIA

Pagoaga Elg. 37 – Jauja G.E. 8 (Kad. nesk.)
Tecnomeca Elg. 25 – Leizaran 26 (Kad. mut.)
ANTT Softlan 27 – Urnieta 23 (Sen. mut.)
Egia Joggers 26 – Pneumax 16 (Jub. mut.)
C.D.B Leizaran 14 – Cometel Elg. 32 (Jub. nsk.)
Amenabar 26 – Tecnifuelle Elg. 21 (Sen. mt.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 1
12:00 Elgoibar – Eibar (Infantil Txiki)
16:30 Haundi – Martutene (Oho. erreg.)
Domeka, 2
10:30 Elgoibar – Aretxabaleta (Aleb partehartz.)
16:00 Elgoibar – Ordizia (Oho. jub.)

ESKUBALOAIA (Olaizaga Kiroldegian)

Barixakua, 31
17:30 Zuazo – San Adrian (Jub. nesk.)
19:30 Tecnifuelle Elg. – Zarautz (Jub. nesk.)
Zapatua, 1
10:00 Txarriduna – Saieko (Inf. mut.)
11:15 Bacalaos – Aiala (Inf. nesk.)
12:30 Cometel Elg. – Urnieta (Kad. nesk.)
16:00 Zarautz – Zuazo (Jub. nesk.)
17:45 Tecnifuelle – San Adrian (Jub. nesk.)
19:30 Alcorta F.G. – Uharte (Senior giz.)
Domeka, 2
10:00 Modeltek – Leizaran (Inf. nesk.)
11:15 San Adrian – Zarautz (Jub. nesk.)
13:00 Zuazo – Tecnifuelle (Jub. nesk.)
ESKUBALOAIA (Olaizaga Kiroldegian)
Domeka, 2
10:00 Elgoibarko Sanlo – Aloña (Aleb.)
11:30 Salento – Saieko (Senior giz.)

Jubenilen Euskadiko Eskubaloi Txapelketa, Olaizaga kiroldegian

Jubenil nesken Euskadiko Txapelketako 4ko Finala jokatu dute asteburu honetan Elgoibarren, Olaizaga kiroldegian. Sanlo Eskubaloi Kirol Taldeko Tecnifuellek zaleen aurrean jokatu du Aiala Zarautz, Zuazo eta San Adrian taldeen aurka. Lehen partida gaur jokatu dute elgoibartarrek, 19:30ean, Zarautzko Aiala taldearen aurka. Zapatuan San Adrian taldearekin neurtuko dituzte indarrak, 17:45ean. Domekan, azkenik, Zuazoren aurka jokatu dute, 13:00etan.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest nago. Interna edo orduka. ☎ 634 209 087

Adinekoak zaintzeko edo zerbitzari lanetarako prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 616 085 126

Zapatu eta domeketan adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 626 435 491 (Idoia)

Kimikan graduatuak eskola partikularrak ematen ditu. ☎ 678 801 052

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 633 072 144

Lan bila nabil. Lorezain, obrako peoi, eraikuntza lanetan, altzariak berritzen, fruta dendan... Edozer egiteko prest nago. Pintorea naiz, bigarren mailako titulu ofiziala daukat. ☎ 631 31 68 04

Elgoibartarra eta euskalduna etxeak garbitzeko prest. ☎ 649 782 967

Adinekoak zainduko nituzke. Interna ere bai. Esperientzia eta erreferentziak ditut. ☎ 632 490 649

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 688 698 854

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 688 712 075

Sukaldari laguntzaile edo zerbitzari lanetarako prest. ☎ 631 369 704

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, orduka. Esperientzia daukat. ☎ 632 436 462

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 680 808 125

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 638 920 358 / 602 193 095

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. ☎ 658 734 699

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. ☎ 645 891 307

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 685 724 861 / 943 748 899

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Asteburutan ere. Esperientzia. ☎ 631 506 763

Adinekoak zainduko nituzke, asteburuetan. Interna ere bai. Esperientziarekin. ☎ 648 039 187

Adinekoak zainduko nituzke, asteburuetan. ☎ 632 026 510

Adinekoak zainduko nituzke. ☎ 631 613 245

Adinekoak zainduko nituzke, goizetan. Esperientzia eta erreferentziak ditut. ☎ 602 057 185

Adinekoak zainduko nituzke. Interna ere bai. ☎ 649 044 223

Nagusiak zaintzeko edo garbiketarako prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 612 493 242

Nagusiak zaintzen edota garbiketa lanetan egingo nuke lan. Esperientzia daukat. ☎ 626 407 923

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat eta malgutasuna ordutegian. ☎ 612 550 377

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Prestutasun osoa. ☎ 666 197 835

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia handia daukat. Orduka edo interna moduan. ☎ 697 665 452

Asteburuetan eta gauetan adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 651 156 456

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 622 162 798

Bi logelatako pisua alokatzen dut Ubi-tarten, igogailu eta altzari guztiekin. ☎ 656 720 238

Pisua edo logela bat behar dut alokairuan. ☎ 632 533 475

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarran. ☎ 631 369 704

Pisua alokairuan hartuko nuke Elgoibarran. ☎ 688 895 568

LOKALAK.....
50 metro koadroko lokala alokatu edo saltzen dut, Basarten. ☎ 669 245 520

BESTELAKOAK.....
Tag Heuer Monaco etxeko erlojua galduta. Tag Heuer Monaco etxeko erlojua galduta. Sarritu egingo da. ☎ 627 417 833



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Igogailuaren mantenua beste enpresa batek egiten digu orain gure komunitatean, eta kontratatatu berri dugun enpresa horrek jakinarazi digu pieza batzuk falta direla. Jakin nahiko nuke zeinek hartu behar duen hori bere gain, orain arte mantenu-lanak egiten zizkigun enpresak argi eta garbi esan digulako idatziz eurek dena ondo laga zutela.

Igogailuaren mantenu egokirako sinatutako kontratuak dio kontratatutako enpresari dagokiola zerbitzu egokia ematea, eta emango ez balu, auzitegira eramatea legoke.

Piezak falta badira, baina aurreko enpresak jakinarazi ez badu edo pieza hori falta denaz ohartarazi ez badu, ardura berea da. Horrek adierazten duelako araudian jasotakoa bete gabe egon dela igogailua funtzionatzen. Beraz, kontratatatu berri duzun enpresak egiten dizuen fakturaren zenbatekoa aurreko enpresari eskatu ahal izango zaio. Kasu honetan, baina, enpresak dena behar bezala laga duela jakinarazi badu, orain falta diren pieza horiek barne, eta ezinezkoa bazaigu hori hala izan dela egiaztatzea eta enpresa horrek uko egiten badio gastu hori bere gain hartzeari aukera bakarra geldituko zaigu: auzibidea hastea haren kontra.

AHOLKUA: Auzibidea hasiz gero, komunitateak berak frogatu beharko du, perituen bidez, piezak falta izatearen erantzulea enpresa hori dela.



ZORIONAK ZURI

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Oier!** Gaur 6 urte! Muxu asko familiakoen, lehenegusuen eta bereziki, Unax eta Izeiaren partez.



Zorionak, **Elsa,** gaur 7 urte egin dituzulako. Pri-meran pasa eta parranda handia egin! Etxekoan, eta Unairen partez.



Zorionak, **Leire!** Gaur 7 urte! Muxu asko familiakoen partez.



Zorionak, **Danel!** 5 urte handi! Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, Estanisen partez.



Zorionak, **Izaro!** Bihar 2 urte handi beteko dituzul Etxekoan eta bereziki, Danel, Oihan eta Jareren partez.



Zorionak, **Lu-kene!** Oso ondo pasa bihar zure 9. urtebetetzean! Jarraitu horren alai! Muxu asko familiakoen partez.



Zorionak, **Anuska,** bihar 9 urte egingo dituzulako. Muxu asko familiakoen partez. Jarraitu horrela! Ondo ospatu bihar!



Zorionak, **Enai,** asteazkenean urte bat egin zenuelako. Etxekoan eta bereziki, Naroa, Alain eta Julenen partez.



Zorionak, **Kaiet,** gaur 9 urte egin dituzulako. Gurasoen, eta bereziki, Loinatzen partez.



Zorionak, **Nora,** martxoaren 28an 3 urte egin zenituelako. Aittitta-amama eta osabazibeben partez.



Azkenean iritsi da zuen eguna! Zorionak, **Oihane eta Alex!** Ondo pasa, eta etapa berri honetan zoriontsuak izan zaitezela opa dizuegu. Familiakoen partez.



B. Sarasketa, 1 ac 943 12 82 31

Kafea, opilak, ogia, pintxoak, ardoak...

Gozatu **EIBARKO PREZIORIK ONENEKIN!**

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTONDO

LABADEROKUA Egunero 06.00etatik aurrera

Uzuri ELGOIBAR - DEBA optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

EGUZKITAKO BETAURREKOETAN AUKERA ZABALA.

19€ gehiagogatik GRADUATU ITZAZU!

* Kontsultatu baldintzak

IRAZABAL clínica dental

Familiaren Osasuna

Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

Facebooken: Clínica Dental Irazabal | Eta twitterren: @Clinicairazabal

IRAZABAL clínica dental Julián Etxebarria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 - 1 Tel: 943 741 189



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Urazandin ez dituzte zebrabideak errespetatzen: "Urazandi auzoko hainbat bizilagunek ez dituzte zebrabideak errespetatzen. Argazkian ikusten den bezala, hiru auto gaizki aparkatuta daude. Nondik pasatu behar dute gurgildun aukian dauden herritarrek edo ume aukiarekin doazena? Errespetu pixkat eskatu nahiko nuke, bizikidetzarako ezinbestekoa da-eta".



Piboteak jarrita ere, zebrabide gainean aparkatzen du jendeak: "Lotsagarria da auzotar batzuen jokabidea. Hainbat ahaleginen ostean lortu genuen Udalak San Rokeko zebrabide honetan piboteak jartzea, baina hala eta guziz ere, jendeak ez ditu arauak betetzen. Motorra bi ordu pasa egon zen zebrabidean aparkaturik. Zebrabidean aparkatzen duen jendeari eskatu nahi nioke besteengan pixkat gehiago pentsatzeko. Oinez ezin zen bertatik pasatu, eta are gutxiago gurgildun aukian edo ume aukiarri bultzaka".

Udalak ba al dauka kiroldegiko igerilekuak handitzeko asmorik?: Herritar batek ondorengo galdera bidali digu: "Elgoibarko Udal aldizkaria jaso dut etxean, eta, besteak beste, Udalak 2017an egin nahi dituen proiektuak datoz 5. orrialdean. Ez dut Olaizaga Kiroldegiko igerilekuari lotutako inolako aipamenik ikusi, eta jakin nahiko nuke Udalak badaukan igerileku horiek handitzeko planik". Elgoibarko Udalak ondorengo erantzuna eman dio BARRENI: "Momentu honetan Udalak Aita Agirre proiektua dauka esku artean. Hala ere, Olaizaga kiroldegia ere bere lehentasunen artean dago, nahiz eta oraindik ez jakin noiz burutu ahal izango den."



Txalo bat Udalari, Urazandi azpiko bidea asfaltatzegatik: "Kostatakoa izan da, baina azkenean konpondu dute Urazanditik Maalako errotondara doan bidea, eta oso ondo geratu da. Eskerrik asko".

31 BARIXAKUA

19:00 Ekitaldi zibila, Hasier Etxeberriaren omenez. Kalegoen plazan.

1 ZAPATUA

11:00 Informazio saioa: Ingeniaritza Dualari eta Heziketa zikloi buruzko saioa. IMHn.

16:00 Elgoibarko aurreku eta soinu zahar txapelketa. Herriko Antzokian.

2 DOMEKA

10:30 Jose Gurrutxaga krosa. Elgoibar Ikastolak antolatuta, Kalegoen plazan.

11:00 Elgoibarko aurreku eta soinu zahar txapelketa. Herriko Antzokian.

4 MARTITZENA

18:00 Maitasunez Hazi edoskitze eta hazkuntza taldearen hileroko bilera. Kultur Etxeko sotoan.

19:00 Laburbira. Korrika Kulturalaren barruan, film laburren emanaldia antolatu dute Udalak, AEK euskaltegiak eta Elgoibarko Izarrak. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

5 EGUAZTENA

7:00 Korrikari ongietorria, Maalako biribilgunean. Mauxitxa txarangak giro-tuko du ekitaldia.

7:40 Korrikari ongietorria, Mendaron, lanbi parean. .

10:30 Korrika Txikia, Elgoibarren. Maalako parkean hasiko da.

11:15 Korrika Txikia, Mendaron. Ikastolan hasiko da.

12:00 Korrika Gaztea, Elgoibarren. IMHk eta Institutuak antolatuta.

7 BARIXAKUA

21:30 Zine forum-a: 'La buena mentira'. Kafea hartuko dute lehenengo eta filma 22:00etan hasiko da. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. Antolatzailea: Haizea.

Zinea (Herriko Antzokian)

'Lo que de verdad importa'

31 barixakua: 22:15
1 zapatua: 19:00 / 22:15 VOS
2 domeka: 19:00
3 astelehena: 21:30



'Teresa eta Galtzagorri'

2 domeka: 16:30



'El viajante' (Ongarri)

6 eguena: 21:30



Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

31 Barixakua ORUESAGASTI*
1 Zapatua BARRENETXEA
2 Domeka BARRENETXEA
3 Astelehena IBAÑEZ
4 Martitzena GARITAONANDIA
5 Eguaztena ETXEBERRIA
6 Eguena FERNANDEZ*
7 Barixakua YUDEGO

20:00 - 22:00

* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik:
BARRENETXEA (Elgoibar)
Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)
San Agustín, 3 - Tel.: 943 820 533

- FERNANDEZ: Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel.: 943 756 142

- IBAÑEZ: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638

- ORUESAGASTI: Kalebarren, 9
(Soraluze) Tel.: 943 751 384



Manu Sanchez



Unai Villena



Bizitza istorio ikusezinez ere osatzen da. Ur gazizko tantak ibaira erortzean emarian galdu eta itsasorantz nola, halaxe doaz istorio ikusezinak: inguruko ohikotasunean mozzorrotuta. Ez dauden arren, badaude. Badauden arren, ez dira ikusten. Eta eskerrak horrela den, bizitza den hori baita, ikusten dugunari eta ikusten ez denari esker.

[Post-data: Itxi begiak une batez eta saiatu igartzen zein den argazkian ikusten den Elgoibarko edo Mendaroko txokoa (arrasto bat: ibaitik oso gertu dago). Imajinatu noiz eraiki zuten pareta hori, nork, zer gertatu zen barruan, zergatik itsutu ote zuten, nolakoa zen orduko herria... egin ariketa hori, jarri hitzak irudiko harriei eta oraingo honetan nik egin ez dudana egingo duzu: litezkeen istorio guztietatik bat asmatu, zeure irudimenean errealitatea birsortu, ikusezina den hori bizi.]

“Itxi begiak une batez eta saiatu igartzen zein den argazkian ikusten den Elgoibarko edo Mendaroko txokoa”



Hasier Etxeberria Canales

2017ko martxoaren 29an hil zen, 59 urte zituela.

Ez agurrik, ez adiorik; gero arte bakarrik.

Etxepeko langile eta bazkideak

ETXEPE Lan bereziak



Hasier Etxeberria Canales

2017ko martxoaren 29an hil zen, 59 urte zituela.

Betirako izango zaitugu gogoan. Ikusi arte.

Elgoibarko kuadrilla.



Juanita Zulaika Arriola

2017ko martxoaren 25ean hil zen, 99 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Mariano Leyaristi San Martin

- Goian Bego -

2017ko martxoaren 23an hil zen, 91 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.
Haren oroimenez, meza izango da domekan,
apirilaren 23an, 10:30ean Sallobenteko San Lorentzo elizan.

***Zure falta sumatzen dugu,
baina gure bihotzetan zaude.***



BATZUK 20. korrika
 2017ko maiatzaren 3tik apirilaren 7ra

Korrika Kulturala

LABUR BIRA
 FILM LABURREN XIV. ZIRKUITUA
 MARTXOAREN 3tik APIRILAREN 7ra



AZIPE JAQUIA
 Oso Forastas (8' 48")



DETI BEZEDAKO KODIAK
 Agneta Kopia taldea (5' 22")



HELSA
 Aitzpeña Oso Corrala (15' 19")



ELIARAEDEAI
 Oso Iba (4' 58")

www.topagunea.eus/laburbira



JALGI
 Eki Paganga (11")



200°
 BDA Films (2' 47")



EUSDOI
 Laburkatalaia sport musikak (10")



FILETA
 Kopa Soja (18' 58")

TOKIA: Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi-gela

★ **EGUNA: Apirilak 4, asteartea** **ORDUA: 19:00** ★

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAJA

